

## ARABAKO FORU ALDUNDIA DIPUTACION FORAL DE ALAVA

### Xedapenak eta Administrazio Ebazpenak

#### Diputatuen Kontseiluaren Foru Dekretuak

7.596

**118 zenbakiko FORU DEKRETUA, 2000ko abenduaren 5eko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 16.2.a) artikulua garatzen da eta 52 urtetik gorakoek gizarte aurreikuspen osagarriari egin beharreko ekarpenen mugak ezartzen dira.**

I.- Dekretu honek bi helburu ditu, batetik, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 16.2.a) garatzea eta, bestetik, 52 urtetik gorako bazkide, mutualista edo partaideek gizarte aurreikuspen osagarriari egindako ekarpenak direla eta egin beharreko murrizpenetan portzentaje eta zenbateko handiagoak ezartzea.

II.- Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 16ko 35/1998 Foru Arauaren 16.2.a) artikuluan ezartzen duenaren arabera, lanaren etekinak bi urtetik gorako epean sortu direnean eta aldizka edo noizik behinka lortutakoak ez badira, edo araz jotzen bada aldi irregularretan lortutakoak direla nabarmen, lanaren etekin osoa %70 ezarrita lortuko da; sortutako etekina bost urtetik gorako epean lortu bada, portzentaje hori %60koa izango da.

Hala ere, aipatu foru arauaren 16.2.a) artikulua ezartzen duenez, baldin eta zerbitzuak ematen diren entitatearen akzioen gaineko aukerez baliatuz lortu badira lanaren etekinak, bai eta entitatea partaide den sozietate-taldearen akzioak edo lotura duen beste edozein entitatearen akzioak direnean ere, lehen aipatutako integrazio-portzentajeak ezarri behar zaizkion etekinen zenbatekoak ez du gaindituko araz ezartzen den kopurua bider etekina sortu den urteen kopurua eginez lortutako zenbatekoa.

Aipatu foru arauaren 16.2.a) artikuluan erregulatutakoari jarraituz, zehaztu behar da zein kopuru biderkatu behar zaion lan-etekina sortu den urte-kopuruari, %70 eta %60ko portzentajeak, kasuen arabera, zein etekin-zenbatekori ezarri behar zaizkion zehazteko. Horixe da foru dekretu honen helburua, zenbateko hori 3.000.000 pezeta finkatzea (18.030,36 euro).

III.- Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren abenduaren 16ko 35/1998 Foru Arauaren 62. artikuluan 3. paragrafoak ezartzen duenez, mutualitateei, pensio planei eta borondatezko gizarte aurreikuspenarako entitatei egindako ekarpenengatik egin ahal diren murrizketa guztiei dagokienez, zenbateko hauen arteko txikiena izango da gehienezko muga:

a) Kopuru hauen baturaren %25: batetik, lan-etekinak, etekin osoan gastu kengarrien zenbatekoa gutxituz lortutakoak, eta bestetik jarduera ekonomikoen etekin garbiak, norberak ekitaldian zehar jaso edo irabazitakoak.

b) Urteko 1.200.000 pezeta (7.212,15 euro).

Araz horrek zehazten duenez, beren adina dela-eta portzentaje edo kopuru hori txikiegi gertatzen zaion bazkide, mutualista edo partaideen kasuan, portzentaje eta kopuru handiagoak ezar daitezke araz.

Horren harira, dekretu honen bidez portzentaje eta zenbateko handiagoak ezarriko dira 52 urtetik gorako bazkide, mutualista edo partaideentzat.

Zerga Araudiaren Zerbitzuak eta Batzorde Aholkulariak horretaz eman dituzten txostenak ikusi dira.

Ondorioz, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak proposatuta, Diputatuen Kontseiluak gaur egindako bilkuran aztertu ondoren, hau

XEDATU DUT:

**Artikulu bakarra.- Ekainaren 29ko 86/1999 Foru Dekretua aldatzea; horren bidez Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 16ko 35/1998 Foru Arau partzialki garatu zen.**

### Disposiciones y Resoluciones Administrativas

#### Decretos Forales del Consejo de Diputados

7.596

**DECRETO FORAL del Consejo de Diputados número 118, de fecha 5 de diciembre de 2000, por el que se desarrolla el artículo 16.2.a) de la Norma Foral del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas y se fijan los límites de aportaciones a la previsión social complementaria para los mayores de 52 años.**

I.- El presente Decreto Foral tiene por objeto, por una parte, desarrollar el artículo 16.2.a) de la Norma Foral del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, y por otra establecer porcentajes y cuantías superiores de reducción por aportaciones a la previsión social complementaria para los socios, mutualistas o partícipes mayores de 52 años.

II.- El artículo 16.2.a) de la Norma Foral 35/1998, de 16 de diciembre, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, establece que cuando los rendimientos de trabajo tengan un período de generación superior a dos años y no se obtengan de forma periódica o recurrente o se califiquen reglamentariamente como obtenidos de forma notoriamente irregular en el tiempo, el rendimiento integro se obtendrá aplicando el 70% o, si el período de generación supera los cinco años, se aplicará el 60%.

No obstante lo anterior, el artículo 16.2.a) de la citada Norma Foral establece que en el supuesto de rendimientos del trabajo que se pongan de manifiesto con ocasión del ejercicio de opciones sobre acciones de la entidad en la que se prestan los servicios, de cualquiera del grupo de sociedades o de cualquier otra entidad con la que exista vinculación, la cuantía del rendimiento sobre la que se aplicarán los porcentajes de integración antes señalados no podrá superar el importe que resulte de multiplicar la cantidad que se determine reglamentariamente por el número de años de generación del rendimiento.

En base a esta regulación del artículo 16.2.a) de la citada Norma Foral, se hace preciso determinar la cantidad que multiplicada por el número de años de generación del rendimiento de trabajo, origina la cuantía del rendimiento sobre la que se aplican los porcentajes del 70% o del 60%, según los casos. Este es el objeto del presente Decreto Foral que fija la referida cantidad en 3.000.000 de pesetas (18.030,36 euros).

III.- El apartado 3 del artículo 62 de la Norma Foral 35/1998, de 16 de diciembre, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, establece, como límite conjunto de las reducciones por aportaciones a Mutualidades, Planes de Pensiones y Entidades de Previsión Social Voluntaria, la menor de las cantidades siguientes:

a) El 25% de la suma de los rendimientos del trabajo, resultantes de minorar el rendimiento integro en el importe de los gastos deducibles, y de los rendimientos netos de las actividades económicas, percibidos u obtenidos individualmente en el ejercicio.

b) 1.200.000 pesetas (7.212,15 euros) anuales.

El mismo precepto señala que reglamentariamente pueden establecerse porcentajes y cuantías superiores para aquellos socios, mutualistas o partícipes a los que, por su edad, dicho porcentaje o cantidad les resulte insuficiente.

Pues bien, el presente Decreto Foral tiene por objeto establecer porcentajes y cuantías superiores para los socios, mutualistas o partícipes mayores de 52 años.

Visto el informe emitido al respecto por el Servicio de Normativa Tributaria y el emitido por la Comisión Consultiva.

A propuesta del Diputado titular del Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, previa deliberación del Consejo de Diputados en sesión celebrada el día de hoy,

DISPONGO:

**Artículo único.- Modificación del Decreto Foral 86/1999, de 29 de junio, que desarrolla parcialmente la Norma Foral 35/1998, de 16 de diciembre, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas.**

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 16ko 35/1998 Foru Araua partzialki garatu zuen ekainaren 29ko 86/1999 Foru Dekretuan ondoko aldaketak egiten dira:

**Bat.**- 7. artikulua idazpuru honela idatzita geatuko da:

"7. artikulua.- Denboran zehar irregularki jasotako lan-etekinak, zatika jasotako etekinak eta horiek noiz sortzen diren eta Zergari buruzko Foru Arauaren 16.2.a') artikulua aipatzen duen zenbatekoa zehaztea."

**Bi.**- 7. artikuluar beste paragrafo bat gehituko zaio, 6.a, testu hau izango duena:

"6. Zergari buruzko Foru Arauaren 16.2.a') artikuluan aipatzen den zenbatekoa 3.000.000 pezetakoa izango da (18.030,36 euro). Zenbateko hori biderkatuko zaio lan-etekina sortu den urte-kopuruari Zergari buruzko Foru Arauaren 16. artikulua 2. paragrafoa a) idatzatzen aipatutako portzentajeak zein etekin-zenbatekori ezarri behar zaizkion zehazteko."

**Hirugarrena.**- Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 16ko 35/1998 Foru Araua partzialki garatzen duen ekainaren 29ko 86/1999 Foru Dekretuaren III. tituluan artikulua berri bat sartuko da, 27.a bis, testu hau izango duena:

"27. bis artikulua.- Zergari buruzko Foru Arauaren 62. artikuluan aipatzen den murrizpenen muga.

1. Zergari buruzko Foru Arauaren 62. artikulua 3. paragrafoa a) idatzatzen aipatzen den portzentajea %40koa izango da 52 urtetik gorako bazkide, mutualista edo partaideentzat.

2. 52 urtetik gorako bazkide, mutualista edo partaideentzat, 1.200.000 pezetako (7.212,15 euro) urteko zenbatekoari 100.000 pezeta (601,01 euro) gehituko zaio bazkide, mutualista edo partaideak 52 urtetik gora duen urte bakoitzeko, eta 2.500.000 pezetakoa (15.025,30 euro) izango da 65 urte duten bazkide, mutualista edo partaideentzat. Horrenbestez, kasu horietarako, 62. artikulua 3. paragrafoa b) idatzatzen aipatzen den zenbatekoa honakoa izango da:

	Muga	
	Pezeta	Euro
53	1.300.000	7.813,16
54	1.400.000	8.414,17
55	1.500.000	9.015,18
56	1.600.000	9.616,19
57	1.700.000	10.217,20
58	1.800.000	10.818,22
59	1.900.000	11.419,23
60	2.000.000	12.020,24
61	2.100.000	12.621,25
62	2.200.000	13.222,27
63	2.300.000	13.823,28
64	2.400.000	14.424,29
65 eta hortik gora	2.500.000	15.025,30

#### AZKEN XEDAPENA

Araba Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera hartuko du indarra foru dekretu honek.

Vitoria/Gasteiz, 2000ko abenduaren 5a.- Diputatu nagusia, RAMON RABANERA RIVACOBAN. Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua, JUAN ANTONIO ZARATE PEREZ DE ARRILUCEA.

*Diputatuen Kontseiluaren Erabakiak*

7.306

**886/2000 ERABAKIA**, azaroaren 21ekoa, Diputatuen Kontseilua. Honen bidez, Foru Aldundiaren ordezkariak izendatzen dira HABE erakundearen Zuzendaritza Patronaturako eta Etorkinak Gizarteratzeko Fororako.

Burutzen dituen jarduera publikoen artean, Arabako Foru Aldundiak hainbat erakunde, elkarte eta entitatetan hartzen du parte.

Legegintzaldian zehar, Aldundiak erakunde horietan duen ordezkariak aldatu edo osatu behar izaten da; horrenbestez, ordezkariak aldatu edo izendatu egingo dira ondoren aipatzen diren erakundeetarako.

Se introducen las siguientes modificaciones en el Decreto Foral 86/1999, de 29 de junio, que desarrolla parcialmente la Norma Foral 35/1998, de 16 de diciembre, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas:

**Uno.** El título del artículo 7 quedará redactado de la siguiente forma:

"Artículo 7.- Rendimientos de trabajo obtenidos de forma notoriamente irregular en el tiempo, rendimientos percibidos de forma fraccionada, determinación del período de generación y de la cantidad a que se refiere el artículo 16.2.a') de la Norma Foral del Impuesto."

**Dos.** Se añade un nuevo apartado, el 6, al artículo 7, que tendrá la siguiente redacción:

"6. La cantidad a que se refiere el artículo 16.2.a') de la Norma Foral del Impuesto, se fija en 3.000.000 de pesetas (18.030,36 euros). Ésta será la cantidad que, multiplicada por el número de años de generación del rendimiento, origina la cuantía del rendimiento sobre la que se aplican los porcentajes a que se refiere la letra a) del apartado 2 del artículo 16 de la Norma Foral del Impuesto."

**Tres.** En el Título III del Decreto Foral 86/1999, de 29 de junio, que desarrolla parcialmente la Norma Foral 35/1998, de 16 de diciembre, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, se crea un nuevo artículo, el 27 bis, que tendrá la siguiente redacción:

"Artículo 27 bis.- Límite de las reducciones a que se refiere el artículo 62 de la Norma Foral del Impuesto

1. El porcentaje a que se refiere la letra a) del apartado 3 del artículo 62 de la Norma Foral del Impuesto, será del 40% para los socios, mutualistas o partícipes mayores de 52 años.

2. Para los socios, mutualistas o partícipes mayores de 52 años, la cantidad anual de 1.200.000 pesetas (7.212,15 euros) se incrementará en 100.000 pesetas (601,01 euros) adicionales por cada año de edad del socio, mutualista o partícipe que exceda de 52, fijándose en 2.500.000 pesetas (15.025,30 euros) para socios, mutualistas o partícipes de 65 años o más. De esta forma, y para estos casos, la cantidad a que hace referencia la letra b) del apartado 3 del artículo 62 de la Norma Foral del Impuesto, será la siguiente:

	Limite	
Edad	Pesetas	Euros
53	1.300.000	7.813,16
54	1.400.000	8.414,17
55	1.500.000	9.015,18
56	1.600.000	9.616,19
57	1.700.000	10.217,20
58	1.800.000	10.818,22
59	1.900.000	11.419,23
60	2.000.000	12.020,24
61	2.100.000	12.621,25
62	2.200.000	13.222,27
63	2.300.000	13.823,28
64	2.400.000	14.424,29
65 y en adelante	2.500.000	15.025,30

#### DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto Foral entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava.

Vitoria-Gasteiz, 5 de diciembre de 2000.- El Diputado General, RAMÓN RABANERA RIVACOBAN. El Diputado Foral titular del Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, JUAN ANTONIO ZARATE PÉREZ DE ARRILUCEA.

*Acuerdos del Consejo de Diputados*

7.306

**ACUERDO 886/2000**, de 21 de noviembre, del Consejo de Diputados, que designa representantes de esta Diputación Foral en el Patronato Rector de HABE y el Foro para la Integración de los/as Inmigrantes.

La Diputación Foral de Álava en el desarrollo de su actividad pública participa en diferentes Organismos, Sociedades o Entidades.

A lo largo de la legislatura interesa renovar o completar, en cada caso, los representantes de la Diputación en los mismos por lo que procede, en los que se señala, su sustitución o designación.